

Arratia

"Bidean Gagoz"


13. zk.

2008ko ekaina

TOKIKO AGENDA 21aren gainerako informazio aldizkaria



Arratia



ingurumena.net

Gure esku dago
está en nuestras manos

NAZIOARTERKO INGURUMEN EGUNA
DÍA MUNDIAL DEL MEDIO AMBIENTE

ARRATIAKO UDALERRIAK IRAUNKORTASUNE- TIK GERO ETA HURBILAGO DAUDE

Bizkaiaiko Foru Aldundiko Ingurumen sailko 2008ko dirulaguntzen programaren barnean, Tokiko Agenda 21en aurten garatuko diren ekintza ugari finantziazio garrantziatsua eskuratu dute Arratian.

ARANTZAZUKO PROIEKTUA: "Trafikoa lasaitu, disuasio-aparkalekuak jarri eta Arantzazu-Igorre lotura egin oinezkoentzat".

AREATZAKO PROIEKTUA: "Arratia ibaiaren integrazioaren 1. fasea osatu: Ribera de los Sacramentinos parkea egokitu".

DIMAKO PROIEKTUA: "Hiri erdigunearen lasaitasunerako proiektua: Enparantza oinezkoentzako prestatu".

ARTEAKO PROIEKTUA: "Kalleja kalea oinezkoentzat prestatu".

IGORREKO PROIEKTUA: "Igorreko Elexalde kalea eta Udaletxearen inguruaren urbanizazio proiektuaren bigarren fasea burutu: Helburuak dira oinezkoen mugikortasuna eraztea, herri argiteriaren energia eraginkortasuna hobetzea, disuasio-aparkalekuak eta aisialdi ekipamendu eta berdeguneak jartzea".

Gainera hurrengo hilabeteetan biodibertsitatea eta ingurumen sentsibilizazioa handitzeko, airearen kalitatea hobetzeko, disuasio-aparkalekuak guneak zabaltzeko, mugikortasun modu iraunkorragoak bultzatzeko, e.a. beste hainbat ekintza burutuko dira.

OINEZBUSA BERRIRO MARTXAN

Ekainaren 2tik aurrera ikasturte amaiera arte, EGUN BERDEAK programarekin batera, OINEZBUSA martxan izango da Igorren, Areatzan eta Zeanurín. Dakizuen moduan, Lemoan, eskolara oinez joateko modu hau ikasturte osoan izan ohi da. Irailetik aurrera beste lekuetan ere zerbitzu hau 2008-2009 ikasturte osora zabaltzen saiatuko gara.



Arratiako Eskola Agenda 21en barnean gure eskualdeko eskoletan haur eta gaztetxoak Aztarna ekologikoa aztertzen aritu dira ikasurte osoan. Lan hori guztia kaleratzeko asmoz

jarraian aurkezten dizuegun informazio-txosten bat egin dute. Zorionak, gazteok, ingurumenaren alde egindako ahalegin guztiagatik eta horrela jarraitu!

ESKOLA AGENDA 21 2007-2008 IKASTURTEA AZTARNA EKOLOGIKOA



1 SARRERA

Eskola Agenda 21 proiektuan duela hiru urte hasi ginen: aurreko bi urteetan ura eta hondakinen gaiak landu genituen eta aurtengoan AZTARNA EKOLOGIKOAREN gaia landu dugu.

Zer da aztarna ekologikoa?

Aztarna ekologikoa, kontsumitzen ditugun produktuak ekoizteko eta sortzen ditugun hondakinak beregain hartzeko planetak behar duen lurrazta tamaina neurtzen duen adierazlea da. Izan ere, lurreko biztanle bakoitzak euskaldunok bezala kontsumituko balu, gizakiok bi planeta eta erdi behar genituzke bizirik irauteko!!!!

2. ZER EGINDU DUGU IKASTURTE HONETAN?

Ikasturte honetan etxean, herrian eta ikastetxean eragiten dugun ingurugiro-eragina neurtzen ikasi dugu, gure bizimodua planetak natur baliabideak eskaintzeko duen gaitasuna zenbateraino gainditzen ari den ikasiz eta horri aurre nola egin ere ezagutu eta martxan jarri.

Egindako lanak pausoz pauso

- CEIDAK dinamizatutako koordinazio bilerak izan ditugu, ikasturte guztian zehar.
- Udalen bitartez kontratatutako Ondoan, S. Coop. Aholkularitza Etxearekin ere bakarkako eta hiru zentzoren arteko batzarrak egin ditugu ikasturte guztian zehar, sortzen joan zaizkigun beharrei erantzuna eman eta kronograma eta bertan aurreikusitakoa behar den bezala betetzen joateko.

2.1. Antolakuntza fasean...

- Irail amaieran gurasoei zuzendutako eskutitz bat bidali diegu. Eskutitzaren edukia hiru zatitan banatu dugu:
 - 1) Aztarna ekologikoaren definizioa.
 - 2) Ingurumen Batzordean parte hartzeko gonbitea.
 - 3) Aztarna ekologikoari buruzko hitzaldian parte hartzeko gonbitea.
- Ingurumen Batzordea hiru bider egin dugu: azaroan lehenengoa, martxo-apirila bitartean bigarrena eta azkena ekainean. Bileren aktak jaso ditugu. Ondoan Aholkularitzako arduratu dira dinamizazioa eta idazkaritza lanak egiteaz.

2.2. Sentsibilizazioa eta motibazioa lantzeko...

- Txoko berdea egokitu dugu.
- Eskola Agenda 21 eguna ospatu dugu urriaren 2an. Honako ekintzak garatu ziren besteak beste:
 - Aztarna ekologikoari buruzko marrazkiak (logotipoa) egiteko, esaldiak asmatu eta gela bakoitzean bat aukeratu Txoko berdean jartzeko.
 - Ingurumen gaietaz arduratzeko boluntarioak eskatu (Ingurumen Batzordean parte hartuko duten ikasleen ordezkariak).
 - Gelan hitzarmen bat sinatu, Eskola Agenda 21aren alde lan egingo den apustua.
 - Bideoak jarri dira.



- Aztarna ekologikoari buruzko hitzaldia antolatu dugu urrian, Dima, Zeanuri eta Igorreko hiru ikastetxeetan. Hitzaldia, Ondoan laguntzarekin antolatu, ikasle, guraso eta ikastetxeko langileei zuzendua zen. Hitzaldi hauek ordu erdikoak izan dira. Lehenengo 10-15 minututan teoria landu da, aztarna zer den plano teoriko batean ezagutzeko eta atal praktikoari dagokionean bakoitzak bere aztarna kalkulatzeko aukera izan du. Dimako hitzaldia;

urriaren 23an; Igorreko hitzaldia: urriaren 24an; Zeanuriko hitzaldia: urriaren 25ean.

- Ikasle, irakasle eta gurasoei zuzendutako galdetegiak banatu ditugu ikastetxean. Bertan aztarna ekologikoaren kalkulua egin da. Ondoan arduratu da galdetegi ereduak prestatzeaz eta erantzunen batezbestekoa ateratzeaz. Ondorioak, ikusteko.

2.3. Diagnostikoa...

- Azarotik eta otsailera bitartean Ikastetxeko diagnostikoa egin dugu.
- Herria ezagutzeko ibilbide bat egin dugu apirila-maiatza bitartean eta ondorio eta proposamen ezberdinak atera ditugu.
- Ibilbideko ondorioak, Aholkularitza Etxeak egindako herriko diagnostikoa txertatu ditugu.

2.4. Ekintza planean...

Ikastetxean urte garatzeko konpromiso batzuk martxan jarri ditugu eta gure alkateari herria hobetzeko proposamenak egin dizkiogu ekainean antolatu dugun Foroan. Bertan aurreko ikasturtean eskatu zenari buruzko egoera zein den ere galdetu diegu.

2.5. Jarraipen planean...

Hartutako konpromisoen jarraipena egin ahal izateko adierazle batzuk aukeratu ditugu, urte urte balorazioa egiteko.

3. ZEINTZUK DIRA GURE IKASTETXEEN KONPROMISOAK?

3.1. Dimako ikastetxeak hartutako konpromisoak

Hondakinen inguruan gure ikastetxearen helburu nagusia hau da: HONDAKIN MOTA EZBERDINEN SORRERA MURRIZTU ETA KUDEAKETA EGOKIA BULTZATZEA. Horretarako hartu ditugun konpromisoak hauek dira:

1. **ESKOLAKO PAPER KONTSUMOA MURRIZTUKO DUGU.**
 - 1.1. Fotokopiak bi aldeetatik egiten jarraituko dugu.
 - 1.2. Erabilitako papera berrerrabiltzen jarraituko dugu.
 - 1.3. Paper birziklatua erabiliko dugu.
2. **ESKOLAKO ETA ETXEETAKO HIRI HONDAKIN SOLIDOEN SORRERA MURRIZTUKO DUGU.**
 - 2.1. Hondakin gutxiago sortzeko gure kontsumoa murriztuko dugu.



3. **HIRI HONDAKIN SOLIDOEN KUDEAKETA EGOKIA EGINGO DUGU.**
 - 3.1. Ikastetxean hondakin ezberdinak ongi sailkatuko ditugu edukiontzietan egokiak erabiliz.
 - 3.2. Zabor ontzietara bota behar ez diren hondakinak gure etxetatik garbigunera eramango ditugu.
4. **GURE IKASTETXEA ETA HERRI INGURUA TXUKUN MANTENTZEN SAIATUKO GARA.**
 - 4.1. Ez dugu zikinkeriarik lurrera botako. Eskola ingurua garbi mantenduko dugu.
 - 4.2. Eskolan zein herrian paperontziak erabiliko ditugu.

Ingurumenarekin eta eguneroko bizitzarekin lotura duten bestelako konpromisoak ere hartu ditugu:

- Ura, argia, berogailua, neurritz erabiliko ditugu.
- Beharrezkoa ez denean, argia, aparatuak, e.a. itzalita edukiko ditugu.
- Ingurumen gaiari arreta jarriko diegu, arduratu egingo gara.
- Etxean eta herrian eskolako antzera saiatuko gara.
- Ingurumenaren aurkako egoerak ikusten doguzanean komentatu eta dagokionari esango diegu gauzak konpondu eta bideratzeko.

Konpromiso hauek guztiak eguneroko eta etengabe betetzen saiatuko gara.



3.2. Igorreko ikastetxeak hartutako konpromisoak

Hondakinen inguruan gure ikastetxearen helburu nagusia hau da: HONDAKIN MOTA EZBERDINEN SORRERA MURRIZTU ETA KUDEAKETA EGOKIA BULTZATZEA. Horretarako hartu ditugun konpromisoak hauek dira:

- ESKOLAKO PAPER KONTSUMOA MURRIZTUKO DUGU.
 - Fotokopiak bi aldeetatik egiten jarraituko dugu.
 - Erabilietako papera berrerabiltzen jarraituko dugu.
 - Paper birziklatuen erabilera lortu nahi dugu bai ekintza dozentean eta baita ekintza administratiboetan ere.
- ESKOLAKO ETA ETXEETAKO HIRI HONDAKIN SOLIDOEN SORRERA MURRIZTUKO DUGU.
 - Sentsibilizazio kanpaina egingo dugu ez botatzeko zaborrik ez ikastetxean, ez kalean eta ezta jantokian ere.
 - Hamaiketakoa eta/edo merienda telazko poltsetan edo/eta material birziklagarri eginiko poltsetan ekarriko dugu, plastikoaren orde.
- HONDAKIN TOXIKO BAKOITZAREN KUDEAKETA EGOKIA EGINGO DUGU
 - Tonerrak eta kartutxoak birziklatzeko bildu eta jasotzaileari deituko diogu.
 - Fluoreszenteak Udaletxeak antolatzen duen bilketa selektibora eramango ditugu.
 - Arrisksutsuak diren produktu batzuk ordezkatzeko ditugu.
- HIRI HONDAKIN SOLIDOEN KUDEAKETA EGOKIA EGINGO DUGU.
 - Ikastetxean hondakin ezberdinak ongi sailkatuko ditugu kontenedore egokiak erabiliz.
 - Goi ziklokoek Garbigunera bisita egin eta zabor mota ezberdinak eramango ditugu bertan botatzeko.

Hondakinen inguruan gure ikastetxeen helburu nagusia hau da: HONDAKIN MOTA EZBERDINEN SORRERA MURRIZTU ETA KUDEAKETA EGOKIA BULTZATZEA.

Parte-hartzearen inguruan gure ikastetxearen helburu nagusia hau da: HEZKUNTZA KOMUNITATE OSOAREN PARTE HARTZEA BULTZATZEA. Horretarako hartu ditugun konpromisoak hauek dira:

- HEZKUNTZA KOMUNITATEAN ESKOLAKO AGENDA 21 PROIEKTUA HEDATUKO DUGU.
 - Ikastetxearen proiektuaren aurkezpen gutunak estamentu ezberdinei bidaliko dizkiegu.
 - Ikastetxeko web orrian eta aldizkarian proiektuari buruzko informazioa sartuko dugu.
- HEZKUNTZA KOMUNITATEAN PARTE HARTZEA BULTZATZEA.
 - Gelako batzarrak egingo ditugu.
 - Lanak eta erantzukizunak banatuko ditugu (patruila berdea sortzea, gelako EA21 arduradunak izendatzea...).
 - EA21eko jaiak antolatuko ditugu hezkuntza komunitatea inplikatzeko.

- Urtero Ingurumen Batzordeak antolatuko ditugu.
- Gutunontziak, kortxoak, txokoak, foroak, e.a. mantenduko ditugu partaidetza bultzatzeko.
- Tokiko Agenda 21ean parte hartuko dugu.

3.3. Zeanuriko ikastetxeak hartutako konpromisoak

Hondakinen inguruan gure ikastetxeko helburu nagusia hau da: HONDAKIN MOTA EZBERDINEN SORRERA MURRIZTU ETA KUDEAKETA EGOKIA BULTZATZEA. Horretarako hartu ditugun konpromisoak hauek dira:

- ESKOLAKO PAPER KONTSUMOA MURRIZTUKO DUGU.
 - Fotokopiak bi aldeetatik egiten jarraituko dugu.
 - Erabilietako papera berrerabiltzen jarraituko dugu.
 - Paper birziklatuen erabilera lortu nahi dugu bai ekintza dozentean eta baita ekintza administratiboetan ere.
- ESKOLAKO ETA ETXEETAKO HIRI HONDAKIN SOLIDOEN SORRERA MURRIZTUKO DUGU.
 - Sentsibilizazio kanpaina egingo dugu ez botatzeko zaborrik ez ikastetxean, ez kalean eta ezta jantokian ere.
 - Hamaiketakoa eta/edo merienda telazko poltsetan edo/eta material birziklagarri eginiko poltsetan ekarriko dugu, plastikoaren orde.
- HONDAKIN TOXIKO BAKOITZAREN KUDEAKETA EGOKIA EGINGO DUGU.
 - Tonerrak eta kartutxoak birziklatzeko bildu eta jasotzaileari deituko diogu.
 - Fluoreszenteak Udaletxeak antolatzen duen bilketa selektibora eramango ditugu.
 - Arrisksutsuak diren produktu batzuk ordezkatzeko ditugu.
- HIRI HONDAKIN SOLIDOEN KUDEAKETA EGOKIA EGINGO DUGU.
 - Ikastetxean hondakin ezberdinak ongi sailkatuko ditugu kontenedore egokiak erabiliz.
 - Goi ziklokoek Garbigunera bisita egin eta zabor mota ezberdinak emango ditugu bertan botatzeko.

Parte-hartzearen inguruan gure ikastetxeko helburu nagusia hau da: HEZKUNTZA KOMUNITATE OSOAREN PARTE HARTZEA BULTZATZEA. Horretarako hartu ditugun konpromisoak hauek dira:

- HEZKUNTZA KOMUNITATEAN EA21 PROIEKTUA HEDATUKO DUGU.
 - Ikastetxearen proiektuaren aurkezpen gutunak estamentu ezberdinei bidaliko dizkiegu.
 - Ikastetxeko web orrian eta aldizkarian proiektuari buruzko informazioa sartuko dugu.
- HEZKUNTZA KOMUNITATEAN PARTE HARTZEA BULTZATZEA.
 - Gelako asanbladak egingo ditugu.
 - Lanak eta erantzukizunak banatuko ditugu (patruila berdea sortzea, gelako Eskolako Agenda 21eko arduradunak izendatzea...).
 - Eskolako Agenda 21eko jaiak antolatuko ditugu hezkuntza komunitatea inplikatzeko.
 - Urtero Ingurumen Batzordeak antolatuko ditugu.
 - Gutunontziak, kortxoak, txokoak, foroak, e.a. mantenduko ditugu partaidetza bultzatzeko.
 - Tokiko Agenda 21ean parte hartuko dugu.

4. ZER ESKATU DIOGU FOROAN GURE UDALARI?

4.1. Dimako ikastetxeak Udalari eskatutakoa

HONDAKINAK

- Edukiontzia gainezka egoten dira, gehiago ipini edo sarriago hustu.
- Zaborrak sailkatzeko, birziklatzeko ontziak falta diren lekuetan, auzoetan ipini.
- Zaborrontzi inguruak garbi mantendu.
- Komunak, altzariak, e.a. Garbigunera eramán.
- Oinezkoen bidean zaborrontziak ipini.
- Ibilgailu zahar abandonatuak birziklatzera eramán.
- Pilotalekua garbiago mantendu.
- Obrak egiten direnean garbitu zikintzen dena.

LURRAREN ERABILERA

- Paseo lekuak txukun mantendu, zaborra ez ostendu landare artean.
- Espazio-zerbitzu publikoetan: aparkaleku, eskola aurrean... ez utzi obra material hondakinak pilatzen. Lurra eta harriak ez bota edonon, eskonbroak behar diren tokira eroan.
- Basoetako zikinakeriak batu. Basoetan gomarik, gurpilik ez erre. Natura zaindu.
- Plazako frontoi sapaia konpondu.
- Hareazko futbol zelaia garbitu, saneamendua konpondu eta erabilgarri jarri.

ENERGIA

- Gauean ordu batetik aurrera farolak amatatu.

URA

- Erreka bazterretako plastiku hondakinak garbitu.
- Erreka bazterretan ez utzi hondakinak pilatzen.

4.2. Igorreko ikastetxeak Udalari eskatutakoa

HONDAKINAK

- Edukiontzien erabilerearen kanpaina antolatu.
- Herrian ingurumen tailerrak antolatzea.
- Ikastetxeko gune konkretuetan kontenedore ezberdinak jarzea.
- Etxeetan edukiontzi bereziak banatzea hondakinak ondo sailkatu ahal izateko.
- Herrian konposta egin ahal izateko guneak jarri, konposta nola egin azaltzen dutenak.
- Kalean falta diren pila eta arropa edukiontziak jarri.

LURRAREN ERABILERA

- Berdegune gehiago eta zimentu gutxiago.
- Dauden berdeguneak ez liotu eta zaindu.

MUGIKORTASUNA

- Herrian abiadura murrizteko seinaleak ipini.

ENERGIA

- Farola ez kutsatzaileak jarri herrian.
- Argitze denbora murriztu, batez ere gau partean.

URA

- Iturrien emaria gutxitu.
- Erreka bazterretan garbitu.

4.3. Zeanuriko ikastetxeak udalari eskatutakoa

HONDAKINAK

- Komenigarria izango litzateke zenbait auzunetan falta diren edukiontziak ipintzea.

ENERGIA

- Farola ez kutsatzaileak jarri herrian.

URA

- Iturrien emaria gutxitzeko neurrien bat hartu.
- Kaminoko iturrian iturria ipini behar da.